

TAXI-LAGUN



ZERBITZUA

Taxi-lagun zerbitzuak udalerri barruan joan-etorriak egiteko aukera ematen die 76 urtetik gorako pertsonari, mendetasuna edo desgaitasuna dutenei.



NON ETA NOLA ESKATZEN DA ZERBITZUA

Eskabide orria bete (l. eranskina) eta Durangoko Adinekoen Udal Zentroan aurkeztu (P. P. Astarloa, 1).
- Telefonoa: **94 465 74 51**
- Emaila: adintek@durango.eus

NORK ERABILI DEZAKE

- Durangon bizi diren 76 urtetik gorako pertsonak.
- Bizkaiko Foru Aldundiak aitortutako desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Eskaera orrian sinatzen duen pertsonaren eta ordezkatuaren NANen fotokopiak.
- Bizkaiko Foru Aldundiko ebazpena/txartela non mendekotasunaren edo desgaitasunaren egoera agertzen den.
- Familia-liburuaren fotokopia (18 urtetik beherakoen tutoreei dagokienez).

ZEIN BIDAIA EGIN DAITEZKE

Udalerri barruko joan-etorriak, **astelehenetik larunbatera, 07:30etik 20:00etara**, urte osoan.

ZENBAT BIDAIA EGIN DAITEZKE

Gehienez **14 bidaia** egin daitezke **2 hilean behin**.
Larrinagatxu, Momotxo eta Eguzkitza inguruetan bizi diren pertsonak gehienez **20 bidaia** egin ahal izango dituzte **2 hilean behin**.

ZENBAT BALIO DU BIDAIA BAKOITZAK

Bidaia bakoitzak 10 euroko kostua du.
Erabiltzaileak 2 euro ordainduko ditu (bonu batekin) eta gainerako 8 euroak Durangoko Udalak emango ditu.

Eskabidea kudeatu ondoren, erabiltzaileari Taxi-lagun identifikazio-txartela emango zaio, eta txartel horrekin bonuak zentroan bertan erosi ahal izango dira. Bonu bakoitza bidaia bati dagokio.



NOLA ERABILI BEHAR DA ZERBITZUA

Taxia erabiltzeko **946811001** telefonora deitu beharko da (taxi-geltokia).

Zerbitzua egingo dela bermatzeko, aurreko eguneko 20:00ak baino lehen eskatzea gomendatzen da.

Bidaia egin aurretik, identifikazio-txartela erakutsiko zaio taxilariari, eta taxi-bonua emango zaio, 2 euroko ordainketari dagokiona.